

DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS PARTICIPANTES

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA FINANCIAR LA OFERTA FORMATIVA 2018-2020 DIRIGIDA PRIORITARIAMENTE A PERSONAS TRABAJADORAS OCUPADAS DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO

- 1-. Las personas participantes deberán cumplimentar y firmar el documento normalizado de solicitud y compromiso de participación (**Anexo 2C**). Se deberá cumplimentar y firmar uno por cada acción formativa en la que participe. Una copia de este documento se entregará a la persona participantes y el documento original será conservado por la Entidad de formación. (Artículo 9-1)
- 2-. Las acciones formativas son totalmente **gratuitas** para las personas participantes. (Artículo 11-2)
- 3-. Sólo se puede participar **una vez** en la misma acción formativa. (Artículo 9-3)
- 4-. El Centro tiene suscrita una **Póliza de seguro** por riesgo de accidentes y de responsabilidad civil que pudieran derivarse como consecuencia de la asistencia a las acciones formativas de todas las personas participantes y que incluye también los trayectos de ida y vuelta (in itinere) al lugar de impartición de los cursos. (Artículo 11-11)
- 5-. Las entidades beneficiarias **entregarán** al inicio del curso a todas las personas participantes en las acciones formativas financiadas en esta convocatoria, al menos:
 - Un manual, editado o en soporte informático, que recoja todos los contenidos de la especialidad.
 - El material de escritorio necesario para el correcto desarrollo del curso.
 - Los elementos de protección que sean precisos.Asimismo, informarán a los/las participantes de este documento sobre los derechos y obligaciones. (Artículo 11-6)
- 6-. Se deberá confeccionar un **parte diario de asistencia** que deberá ser firmado por la persona formadora y por todas las personas participantes. En ese parte diario de asistencia se deberá indicar la hora de entrada y de salida de cada persona en el caso de que no esté en el aula el horario completo del día. (Artículo 11-5)
- 7-. Será causa de **exclusión** del o de la participante en la acción formativa su ausencia en un porcentaje superior al 25% de su duración de la acción. (Artículo 9-2)
- 8-. Se considerará que una persona en modalidad presencial ha **finalizado la formación** cuando haya asistido al menos al 75% de las horas y en modalidad teleformación haya realizado el 75% de los controles de seguimiento y además el resto de requisitos sobre teleformación publicados en las webs de Lanbide y Hobetuz. (Artículo 14-2)
- 9-. A la finalización de la acción formativa las personas participantes deberán cumplimentar un **cuestionario de calidad**. (Artículo 17-1)
- 10-. Las personas participantes en las acciones formativas que superen la formación con evaluación positiva recibirán un **Diploma acreditativo** expedido por LANBIDE. En acciones de Certificado de Profesionalidad, recibirán la acreditación de los módulos aprobados (APAs). El alumnado con evaluación negativa recibirán un **Certificado de Asistencia**. El plazo máximo para su entrega será de dos meses a partir de la fecha de finalización del curso y la Entidad de formación conservará una copia con el “recibi” de la persona participante. (Artículo 11-5 y 11-7)
- 11-. Se comunicará al Centro o Entidad de Formación o a Hobetuz cualquier incidencia que se produzca. Durante el tiempo que dura el curso, estamos utilizando instalaciones, material y servicios de un centro o entidad de formación privada, que se rige por sus normas de convivencia y que nosotros debemos respetar. Su uso indebido supondrá, además de la intervención de Lanbide para su inmediata corrección, la posible responsabilidad individual correspondiente.

EN CASO DE DUDAS O INCIDENCIAS RESPECTO A LA ACCION FORMATIVA PONGASE EN CONTACTO CON HOBETUZ INDICANDO CENTRO O ENTIDAD DE FORMACION Y ACCION FORMATIVA:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
TELEFONO	945.15.01.20	94.415.08.08	943.44.50.22
MAIL	araba@hobetuz.eus	bizkaia@hobetuz.eus	gipuzkoa@hobetuz.eus
DIRECCION	Dato 14-16 3º - Vitoria -Gasteiz	Gran Vía 35 6 - Bilbao	Manterola 4 1º - Donostia -San Sebastián

PARTE HARTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANGILE OKUPATUEI LEHENTASUNEZ ZUZENDUTAKO 2018-2020 PRESTAKUNTZA ESKAINTZA FINANTZATZEKO

- 1- Parte hartzaileek eskabideko eta parte-hartze konpromisoko dokumentu normalizatua bete eta sinatu beharko dute (**2C eranskina**). Parte hartzen duten prestakuntza-ekintza bakoitzeko dokumentu bana bete eta sinatu beharko dute. Dokumentu horren kopia bat parte-hartzaileei emango zaie, eta jatorrizko dokumentua, berriz, prestakuntza-erakundeak gordeko du. (9-1 artikulua)
- 2- Prestakuntza-ekintzak guztiz **doakoak** dira parte-hartzaileentzat. (11-2 artikulua)
- 3- Prestakuntza ekintza berean **behin bakarrik** parte har daiteke. (9-3 artikulua)
- 4- Zentroak parte-hartzaile guztientzat **aseguru-poliza** bat izenpetuta dauka prestakuntza-ekintzetara joatearen ondorioz izan litekeen istripu-arriskurako eta erantzukizun zibileko arriskurako. Poliza horretan, ikastaroak ematen diren tokira joateko eta itzultzeko ibilbideak (in itinere) ere sartzen dira. (11-11 artikulua)
- 5- Erakunde onuradunek, ikastaroaren hasieran, deialdi honetan finantzatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten guztiei material hauek **emango** dizkiete, gutxienez:
 - Espezialitatearen eduki guztiak bilduko dituen eskuliburua, argitaratua edo euskarri informatikoan.
 - Ikastaroa behar bezala egiteko beharrezkoa den idazmahaiko materiala.
 - Beharrezkoak diren babes-elementuak.Halaber, eskubideei eta betebeharrei buruzko dokumentu honen berri emango diete parte-hartzaileei. (11-6 artikulua)
- 6- **Eguneroko bertaratze-partea** egin beharko da, eta berori prestatzaileak eta parte-hartzaile guztiek sinatu beharko dute. Eguneroko bertaratze-partean, pertsona bakoitzaren sarrera- eta irteera-ordua adierazi beharko da, gelan eguneko ordutegi osoan ez bada. (11-5 artikulua)
- 7- Parte-hartzailea prestakuntza-ekintzatik **kanporatuko** da, baldin eta prestakuntza-ekintzaren iraupenaren % 25etik gorako portzentajea bertaratzen ez bada. (9-2 artikulua)
- 8- Modalitate presentzialean, pertsona batek **prestakuntza amaitu** duela joko da, baldin eta, gutxienez, orduen % 75era joan bada, eta, teleprestakuntzako modalitatean, jarraipen-kontrolen % 75 egin badu eta, gainera, Lanbideren eta Hobetuzen web-orrietan argitaratutako teleprestakuntzari buruzko gainerako baldintzak bete baditu. (14-2 artikulua)
- 9- Prestakuntza-ekintza amaitzean, parte-hartzaileek **kalitateari buruzko galdera sorta** bat bete beharko dute. (17-1 artikulua)
- 10- Prestakuntza ebaluazio positiboaz gainditzen duten prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileek LANBIDEk luzatutako **egiaztapen-diploma** jasoko dute. Profesionaltasun-ziurtagirako ekintzetan, gainditutako moduluen egiaztapena jasoko dute (egiaztapen partzial metagarria). Ebaluazio negatiboa duten ikasleek **bertaratze-ziurtagiria** jasoko dute. Hura entregatzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da ikastaroa amaitzen den egunetik hasita, eta prestakuntza-erakundeak kopia bat gordeko du parte-hartzailearen “jasotze-agiria”rekin batera. (11-5 eta 11-7 artikulua)
- 11- Prestakuntzako zentroari edo erakundeari edota Hobetuzi jakinaraziko zaio gertatutako edozein gorabehera. Ikastaroak irauten duen bitartean, prestakuntzako zentro edo erakunde pribatu baten instalazioak, materiala eta zerbitzuak erabiltzen ditugu. Horrek bere elkarbizitza-arauak ditu, eta guk horiek errespetatu behar ditugu. Haiak behar bezala ez erabiltzeak berekin ekarriko du, egoera hori berehala zuzentzeko Lanbideren esku-hartzeaz gainera, litekeen banakako erantzukizuna ere.

PRESTAKUNTZA EKINTZARI BURUZKO ZALANTZARIK EDO GORABEHERARIK IZANEZ GERO, JARRI HARREMANETAN HOBETUZEGIN, PRESTAKUNTZAKO ZENTROA EDO ERAKUNDEA ETA PRESTAKUNTZA EKINTZA ADIERAZITA:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
TELEFONOA	945.15.01.20	94.415.08.08	943.44.50.22
E-MAIL	araba@hobetuz.eus	bizkaia@hobetuz.eus	gipuzkoa@hobetuz.eus
HELBIDEA	Dato 14-16, 3.a - Vitoria-Gasteiz	Kale Nagusia 35, 6.a - Bilbo	Manterola 4, 1.a Donostia